


**BAZTANGO KIROL-KLUBEK UDALEKO KIROLDEGIA ETA BAZTAN FRONTOIA ERABILTZEKO ESKAERA. 2018-2019KO DENBORALDIA (2018-10-01/2019-06-30). ENTRENAMENDUAK.**

<b>Eskatutako instalazioa:</b> <input type="checkbox"/> <b>Frontoia</b> <input type="checkbox"/> <b>Kiroldegia</b>						
<b>Kirol-kluba:</b>				<b>Helbide soziala:</b>		
<b>FIK:</b>				<b>Erregistro zk.:</b>		
<b>Kirol-klubeko burua:</b>						
<b>Harremanetarako pertsona:</b>				<b>tfnoa.:</b>	<b>e-maila:</b>	
<b>Kirol-mota</b>	<b>Maila</b>	<b>Egunak*</b>	<b>Ordutegia</b>	<b>E/KKE**</b>	<b>Datak (hasi/akitu)</b>	<b>Monitore nahiz entrenatzaileen hileko diru-saria</b>
* Zehaztu : al.-ar.-az.-oz.-ol.						
**E: entrenamendua; KKE: klubeko kirol eskola.						

**ESKAERA:**

1. Epea: 2018ko irailaren 3tik 14ra arte.
2. Aurkezteko tokia: Baztango Udaletxeko erregistroan (Foru plaza, zk.g. 31700 Elizondo) edo erregistro elektronikoaren bidez
3. **ERABILTZEKO BALDINTZAK:**
  01. Eskatzen ahal den ordutegia:
    - Al.-ar.-oz.-ol.: 16:30-22:00
    - Az.: 14:00-22:00
  02. Udalak kirol-instalazioak erabiltzeko baimena edo ezezkoa ematerakoan kasu bakoitzean aldiberean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuko ditu.
  03. Baztango Udalak emandako baimena bertan behera utz edo/eta baimendutako ordutegia egoera berrira egokitu dezake, sortutako beharren arabera.
  04. Instalazioko erabiltzeko araudia bete behar da.
  05. Baztango Udalak baimendutako programazioa behin baino gehiagotan ez betetzeak edo/eta kirol instalazioen barne araudia ez betetzeak edo/eta Udalak agindutakoa ez betetzeak Udalak emandako baimena bertan behera uztea ekar dezake
  06. Beharrezko kirol-materiala kirol-klubak berak eraman beharko du.
  07. Instalazioan kirol-oinetako eta kirol-arropa egokiekin sartu behar da.
  08. Kirol-instalazioan ezin da publizitate kartel iraunkorrik paratu.
  09. Instalazioan, bakar-bakarrik, baimendutako jarduerari dagozkien materialak sartu daitezke eta inoiz ibilgailurik, karrozik, orgik, eskorgik edo bertzelako edozerik zola hondatzen ahal duena
  10. Eskatzaileak instalazioko zola ez hondatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu
  11. Eskatzaileak instalazioaren ardura izanen du baimendutako egunetan eta ordutan. Hau da, kirol-klubak antolatutako kirol-jardueren, zenahi ere duen horrek, erantzukizun osoa kirol-klubarena izanen da. Hori horrela, instalazioan bakar-bakarrik sartzan ahal dira eskatzaileak baimendutako pertsonak eta eskatzailearen ardura izanen da horien eta horren kontrola
  12. Eskatzailearen ardura izanen da instalazioa garbi eta egoera onean uztea.
  13. Eskatzaileak, edozein aldaketa balitz aurrikusitako erabilera egutegian, jakinarazi behar dio, lehenbailehen, aldaketa hori bai instalazioko arduradunari bai kirol teknikariari.
  14. Eskatzaileak onartzen ditu eskaeran-orri honetan zehaztatutako baldintzak.